



## GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena  
Erabaki nagusiak

## CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa  
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2020ko apirilak 7

Vitoria-Gasteiz, 7 de abril de 2020

## COVID 19

### Enplegua eta Gizarte Politikak

#### LANBIDEREN LAGUNTZA-DEIALDI BERRIA, AUTONOMO ETA ENPRESABURU INDIBIDUALENTZAKO

Eusko Jaurlartzako Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburu Beatriz Artolazabalek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren akordioa aurkeztu du gaur Gobernu Kontseiluaren aurrean. Akordioak ezohiko laguntza berri baten deialdia onartu du. Laguntza horien jomuga COVID-19ak sortu duen osasun-krisia kudeatzeko xedearekin ezarri den alarma-egoeraren ondorioz beren jarduera eten duten norberaren konturako langileak edo langile autonomoak dira.

Honela, 3 milioi euroko zuzkidura duten laguntza hauek emateko prozedura eta bete beharreko baldintzak arautu dira.

Aurreikusitako diru-laguntzak enpresaburu eta profesional indibidualek eta sozietate zibiletako eta ondasun-erkidegoetako bazkideek eskatu ahal izango dituzte, beti ere ondoko baldintzak betetzen baditzute:

- EAEn erroldatuta egotea eta izatezko etxebizitzaz bertan izatea ere.
- Enpresaren egoitza soziala eta fiskala eta empresa-jarduera Euskadin izatea. Lantokiak egoitza horretan egon behar du ere.
- Negozio-areto baten maizter izatea, beti ere areto hori eskatzailearen etxebizitzaren parte ez bada edo aretoa beste enpresa batekin partekatzen ez bada; bigarren mailako odolkidetasun-harremanik edo afinitate-harremanik ez badago aretoaren alokatzailearekin; eta alokatzaile gisa jarduten den pertsona fisiko edo juridikoaren bazkide edo kide ez bada eskatzailea.
- Arduraldi esklusiboa izatea etenda geratu den jardueran.

Eskariak eredu ofiziala erabiliz aurkeztu beharko dira, egoitza elektronikoaren bitartez. Horretarako, <http://www.lanbide.euskadi.eus> webgunera sartu eta Lanbideko webguneko ([www.lanbide.euskadi.eus](http://www.lanbide.euskadi.eus)) egoitza horretara eramango duen sarbide-lotura bat egongo da.

Eskariarekin batera ondoko dokumentazioa aurkeztu beharko da:

- COVID-19ak sortu duen osasun-krisia kudeatzeko ezaurreko alarma-egoeraren ondorioz beren jarduera eten behar izan dutenei ematen zaien ezohiko prestazioaren onarpen-ebazpena.
- Negozio-aretoaren alokatze-kontratua.
- Ondasun-Erkidegoaren edo Sozietate Zibilaren eraketaren egiaztagiria.

Laguntzak deialdia EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita eskatu ahal izango dira.

Eskariak jasotze-hurrenkeraren arabera aztertuko dira eta deialdian jasotako baldintzak betetzen dituzten guztiak hurrenkera berdin horretan onartuko dira ere, funtsak agortzen diren arte.

## COVID 19

### Enplegua eta Gizarte Politikak

#### **EUSKO JAURLARITZAK 16 MILIOI EURO GEHIAGO ONARTU DITU GLLetarako. BEREN ZUZKIDURA 43,5 MILIOI EUROKOIA IZANGO DA, GUZTIRA**

Gobernu Kontseiluak gaur onartu duenez, 16 milioi euro gehiago bideratuko dira Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailak Gizarte-larrialditarako Laguntzentzako (GLL) aurreikusia duen zuzkidurara. Ondorioz, Eusko Jaurlaritzak 43,5 milioi euro emango dizkie, guztira, Euskal Autonomia Erkidegoko udaltxeei.

Hasiera batean gizarte-larrialditarako laguntzentzat aurreikusia zegoen 27,5 milioi euroko diru-saila eskasegia dirudi Covid-19aren pandemiak eta horren ondoriozko alarma-egoerak sortu duten osasun-larrialdiaren eskutik eskariek bizi izan duten hazkundeari erantzuteko. Egoera honek guztiak eragin larria izan du, biztanle askoren bizitzako baldintzak dezente kaskartu baititu. Horrek, aldi berean, hazkunde esanguratsua ekarri du larrialdiko ekonomia-egoerei dagokienez.

GLLen xedea da etxebizitzaren mantentzeari eta jantzi, hezkuntza, prestakuntza eta osasun-arretari dagokienez dauden funtsezko beharrei loturiko gastu guztiak estaltzea. Finean, bizitzaren oinarritzko beharrak asetzeko beharrezkoak diren gastuak dira. Familiek oinarritzko gizarte-zerbitzuen bitartez eska ditzakete laguntzak eta udaltxeek Jaurlaritzaren aurrekontu osotik dagokien zati proporcionala jasoko dute, jarraian gizarte-egoera ahulenean bizi diren biztanleen artean banatzeko.

Zuzkidura handitzeko onartu diren 16 milioi horiek honela banatuko dira, lurrealdeka:

- Arabako Lurralte Historikoa: 2.522.070 euro
- Gipuzkoako Lurralte Historikoa: 4.073.548 euro
- Bizkaiko Lurralte Historikoa: 9.404.382 euro

## COVID 19

### Enplegua eta Gizarte Politikak

#### **EUSKO JAURLARITZAK ETXEKO ETA LANEKO EGINKIZUNAK BATERAGARRI EGITEKO LAGUNTZAK ONARTU DITU. BERROGEIALDI- EGOERARAKO SORTURIKO ILDO-BERRIAK SARTU DIRA**

Gobernu Kontseiluak Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburu Beatriz Artolazabalek azaldu duen laguntza-multzoa onartu du gaur.

Euskadin azken bi hamarkadetan eman diren laguntza hauek finantzazio-ildo berriak aurreikusi dituzte. Horietako zenbait alarma-egoerak euskal etxetan sortu dituen arazoetarako sortu dira bereziki. Honela, diru-laguntzak aurreikusi dira eskolen eta mendekotasuna duten pertsonak edo adinekoak artatzeko zentroen itxieraren eragina pairatu dutenentzat; bai eta Covid-19aren ondorioz gaixo edo isolatuta dauden pertsonak zaindu behar dituzten familiartekoentzat ere.

Orokorean, ondokoak dira familiak babesteko neurriak:

- Eszedentzian dauden edo lanaldi murriztua duten langileentzako laguntzak, beren seme-alabak zain ditzaten. (2019an abiatutako haurdun geratzen ez diren gurasoentzako amatasun/aitatasun laguntzak barne).
- Eszedentzian dauden edo lanaldi murriztua duten langileentzako laguntzak, mendekotasuna duten edo osasun-egoera oso larrian dauden familiartekoak zain ditzaten.
- Seme-alaba adingabeak zainduko dituzten langileak kontratatzeko laguntzak.

Iaz, 15.885 pertsonek jaso zituzten beren seme-alabak edo mendekotasuna duten edo osasun-egoera oso larrian dauden familiartekoak zaintzeko xedearekin eszedentzian dauden edo lanaldi murriztua duten langileei ematen zaizkien laguntzak edo seme-alaba adingabeak zainduko dituzten langileak kontratatzeko laguntzak; 2018n baino 824 pertsona gehiago.

2019ko urrian ildo berriak sartu ziren diru-laguntza hauetan, etxeko eta laneko eginkizunak bateragarri egin eta familia-erantzunkidetasuna sustatzeko eta haurdun geratzen ez diren guraso eta ezkontideen atxikimendua jaioberriaren lehen egunetatik bertatik ahalbidetzeko. Zentzu horretan, nabarmentzekoa da haurdun geratzen ez diren ezkontideen amatasun/aitatasun laguntzak amatasun-baimenen 16 asteekin parekatzea xede duen ildo-berria sortu zela.

Ildo berri honi esker, jaioberria iritsi bezain pronto seme-alabaren jaiotzaren ondorioz eta aipatua zaintzeko bi gurasoei ematen zaizkien kontribuzio-laguntzek iraupen berbera izango dute, 16 aste hain zuen ere. Laguntza besterenezina, ordaindua da eta ez du zertan batera gertatu behar. Laguntza ekonomiko berri horren zenbatekoa ondokoa da: laguntzaren xede den gertaeraren hasieraren aurreko hilean izandako kotizazio-oinarriaren % 100.

Honela, seme-alaben zaintzan amek zuten rol nagusiarekin apurtu nahi da, aitak zaintza-atazak egitera bultzatu nahi ditugu eta jaioberriak bi gurasoekin duen atxikimendua sendotu nahi da, zientzialariek egiaztatu dutenez bizitzaren lehen hil horietan ezarritako atxikimenduak hazkuntzaren hurrengo etapetan mantentzen baitira eta babes- eta indar-faktorea baitira arrisku-egoeren aurrean. Neurri horren bitarte, halaber, lan-merkatura bueltatzeko eta beren ogibidean aurrera egiteko zaintza-atazek emakumeentzat suposatzen duten oztopoa gutxitu nahi da. Lehen eskariak datozen asteotan jasoko dira.

Horrez gain, eta gizarte-egoera ahulenean dauden taldeak bereziki babesteko asmoz, ondokoei eskainitako laguntzen zenbatekoak % 30 egin du gora: guraso bakarreko familiak, familia ugariak, mendekotasun larria -edo mendekotasun altua- -edo % 50etik gorako desgaitasuna duen pertsonaren bat duten familia-unitateak eta genero-indarkeriaren biktima den pertsonaren bat duten familia-unitateak.

Halaber, bereizkeria positiboa ezarri da eskaria gizona den kasuetarako, laguntzak jasotzeko gehieneko epealdiak luzatu baitira.

### **Malgutzea eta neurri berriak Alarma-egoeraren aurrean**

Eskolen edo adinekoentzako zentroen itxieraren harira azken asteotan sortutako egoeraren aurrean, Eusko Jaurlaritzak uste du familien beharrak ere aldatu direla. Ondorioz, erabaki ezberdinak hartu ditu eta etxeko eta laneko eginkizunak bateragarri egiteko dagoeneko onartuta dauden neurriak malgutu eta laguntzak aldi baterako luzatu ditu.

Alde batetik, aitatasun eta amatasun baimenen epea 16 astetan parekatzen programan, laguntzaren xede den epealdian zehar eskaria egin ez duen pertsona (beste gurasoa) Gizarte Segurantzan alta emanda egotera behartzen duen baldintza malgutu egin da. Honela, egoera larri honen ondorioz eskaria egin ez duen pertsonak bere enpresarekin duen lan-harremana apurtuko balitz, laguntza ez litzateke etengo, beti ere apurtze hori laguntzaren epealdi horren barruan gertatu bada.

Bestetik, laguntzak emango dira ere eskolen edo arreta-zentroen itxieraren ondorioz zaindu beharko diren adingabeak eta/edo mendeko pertsonak zaindu ahal izateko, bai eta Codi-19aren ondorioz gaixo edo isolatuta dauden pertsona horiek zaintzeko ere. Honela:

- Lagunza hauen esleipenerako gutxieneko epealdiaren baldintza malgutu da: 59 egunekoa zen orain arte eta laburragoa izan daiteke, beti ere epealdiaren datak zentro horien itxierarekin edo isolatuta egon behar duten pertsonen isolamendu-denborarekin bat badatoz.
- Laguntzen zenbatekoak bikoitzu dira.
- Adingabeak zaintzeko adina handitu da: 14 urtekoak ere estaliko dira, seme-alabak zaintzeko xedearekin eszedenetzian dauden edo lanaldi murriztua duten langileei ematen zaizkien laguntzen kasuan.

Laguntzen malgutzeak atzeraeginezko efektua izango du: laguntzak zentroak itxi ziren egunetatik ezarriko dira.

Laguntza hauen hasierako zuzkidura 37.145.650 eurokoa bada ere, 52.145.650 eurora arte zabaltzeko aukera egongo da, aurkeztutako eskariak ikusita hori egitea beharrezkotzat joko balitz. Ezohiko neurri berriei erantzun ahal izateko, 15.000.000,00 euroko kreditu ekonomiko bat aurreikusi da.

EAeko Familiei laguntzeko erakunde arteko 2018-2022 Planaren 2. Ardatzak ondoko xedea dauka: etxeko eta laneko eginkizunak bateragarri egiten laguntzea eta erantzunkidetasuna sustatzea seme-alaben zaintzari dagokionez.

Izapide elektronikoa egiteko edo edozein zalantza argitzeko, sar zaitezte [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus) helbidera edo 012 informazio-telefonora dei ezazue.

## COVID 19

### Enplegua eta Gizarte Politikak

#### **EUSKO JAURLARITZAK 100.000 EURO ESLEITU DIZKIO GURUTZE GORRIARI, PREMIA BIZIKO ONDASUNAK HORNITZEN JARRAI DEZAN GUZTION ARTEAN SAREAREN BITARTEZ**

Eusko Jaurlaritzak, Eusko Jaurlaritzako Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuaren proposamenari jarraiki, 100.000 euroko zuzkidura esleitu dio Gurutzeko Gorriari, Gobernuak berak sustatu duen Guztion Artean sarearen bitartez artatzen diren pertsonei premia biziko ondasunak ematen jarrai dezan.

Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailaren ustez, interes orokorrekoa da Gurutze Gorriak arlo honetan gauzatzen dituen esku-hartzeak babestea. Izan ere, Guztion Artean ekimeneko call center-ean jaso diren babes-deiak ikusita egiaztu ahal izan da berebiziko garrantzia duela beste edozein babes-sarereren bitartez eskura ezin diren premia biziko elikadura- eta higiene-ondasunen stocka bermatzea. Ondorioz, interes publiko eta sozial bat dago larrialdi-egoera honi aurre egiteko.

Gurutze Gorriak oinarrizko stock bat metatuko du eta premia biziko elikadura- eta higiene-ondasunak helaraziko dizkie beren etxebizitzetan bakarrik edo bikotekidearekin eta familiartekoen babesik gabe bizi diren 70 urtetik gorakoei eta/edo mendeko pertsonei; bai eta gizarte-egoera ahulenean dauden guztiei ere.

#### **Guztion Artean**

Covid-19aren pandemiaren ondorioz, gizarte-egoera ahulenean dauden pertsona askok beren osasuna eta ongizatea arriskuan jarriko lukete erosketak edo mandatuak egitera aterako balira. Eta, ondorioz, ez dute aukerarik premia biziko sendagaiak, jakiak edo higiene-ondasunak eskuratzeko kanpoko laguntzarekin ez bada.

Behar-egoera larrienean dauden talde horiei -besteak beste- laguntzeko xedearekin eta lagunza behar duten pertsona horien gizarte-estaldura bermatzeko helburuarekin, Eusko Jaurlaritzak Guztion Artean izeneko plan bat jarri du martxan. Bere xedea da antolatutako elkartasun-ekimenak sustatzea eta babeslea, beti ere beren etxebizitzetan bakarrik edo bikotekidearekin eta familiartekoen babesik gabe bizi diren 70 urtetik gorakoen eta/edo mendeko pertsonen, bai eta gizarte-egoera ahulenean dauden guztien beharrak asetzeko. Guztion Artean ekimena Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak eman dituen jarraibideei jarraiki diseinatu da eta erantzun egoki bat ziurtatu ahal izateko beharrezkoak diren zenbait irizpide jaso ditu.

Euskadiko Gurutze Gorriak funtsezko parte-hartzea du programa honetan, babesla edo akonpainamendua behar duten pertsonak artatzen dituzten boluntarioen jarduna koordinatzen lagunten baitu.

## Enplegua eta Gizarte Politikak

### LANBIDEK LAGUNTZA-DEIALDI BAT ABIARAZI DU, UDALETXEEK GAZTE LANGABEAK KONTRATA DITZATEN

Eusko Jaurlaritzako Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburu Beatriz Artolazabalek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren akordioa aurkeztu du gaur Gobernu Kontseiluaren aurrean. Akordioak laguntza-deialdi bat onartu du 2020 ekitaldirako, tokiko erakundeek gazte langabeak kontrata ditzaten 2014-2020 Gazte Enplegarako Programa Operatiboaren barruan. 6,5 milioi euro bideratuko dira.

Lanbidek Euskadiko udal tokiko erakundeei emango zaizkien laguntzen arauak zehaztu ditu, aipatu erakundeek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan eta Gazte Bermearen Sisteman izena emanda duten gazte langabeak kontrata ditzaten. Neurri honen xedea da beren enplegarritasuna sustatzea, eskuratuko duten eskarmeneko profesionalaren bitartez.

Neurri hori Enpleguaren aldeko Europako Estrategiarekin eta 2020 Enpleguaren Euskal Estrategiarekin bat dator.

Gazteen enplegua sustatuko duten formula berriak lortzeko bere esfortzuaren baitan, Lanbidek deialdi berri bat abiarazi du, gazteen enplegua eta garapen pertsonala bultzatzeko xedearekin. Horretarako, enplegu-politiken tokiko dimentsioan oinarrituko da, Euskadiko udaletxeen bitartez. Honela, proposamenak udalerri bakoitzeko gizarte- eta ekonomia-errerealitatera hobeto egokituko dira, udaletxeek beren ingurunea sakontasun eta xehetasunez ezagutzen baitute.

Ondoko Udaletxeek izango dute diru-laguntzak eskatzeko aukera: 2020ko urtarrilean 30 urtetik beherakoentzako % 13ko edo gehiagoko langabezia-tasa izan eta, aldi berean, hil horretan bertan adin horretako 10 langabe edo gehiago zituzten udaletxeak; beren menpeko tokiko garapenerako agentziek -nortasun juridikodunak soilik- ere eskaria egiteko aukera dute. Hiru Lurralde Historikoetako hiriburuak, horrenbestez, deialdian sartuta daude.

Eskariak eredu ofiziala erabiliz aurkeztu beharko dira, egoitza elektronikoaren bitartez. Horretarako, <http://www.euskadi.eus> webgunera sartu eta Lanbideko webguneko egoitza horretara eramango duen sarbide-lotura bat egongo da.

Eskariak aurkezteko epea amaituta eta aurkeztutako kontratazio-plana eta memoria ekonomikoa deialdian ezarritako baldintzak betetzen dituztela baiezta ondoren, udalerri bakoitzari esleitu zaion aurrekontua banatu eta laguntzak esleituko dira kontratazio bakoitzerako, eskarian adierazi diren kontratazioentzat zehaztutako lehentasun-hurrenkera aintzat hartuz.

## Kultura eta Hizkuntza Politika

### EUSKO JAURLARITZAK ‘EUSKALGINTZA’ DEITURIKO DEIALDIA ONARTU DU, 979.200 EURO BIDERATUZ EUSKARA SUSTATZEKO PROIEKTUETARA

- **Iazko deialdiaren bidez 124 proiektu diruz lagundi ziren; eskaerak aurkezteko hilabeteko epea izango da, alarma egoera amaitu eta biharamunetik hasita**

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak onartu du, bere gaurko saioan, Euskalgintza deituriko deialdia, helburu duena gizarte-bizitzan euskara sustatzeko, garatzeko edota normalizatzeko ekimenak laguntzea. Deialdi honen bitartez euskalgintzaren alorrean lan egiten duten elkartea, jarduera edota proiektuak diruz laguntzen dira, eta aurten 979.200 euro banatuko dira era ezberdinetako euskararen aldeko proposamenen artean (iazko kopuru bera da).

Hizkuntza Politikako Sailburuordetzatik bideratzen den diru-laguntza deialdi nagusietako bat da hau, eta euskara sustatzeko hainbat proiektu posible egiten dira honi esker. Urtero 100 proiektu baino gehiago diruz laguntzen dira deialdi honen bidez; iaz, zehazki, 124 lagundi ziren. Lerro honek zazpi multzo ezberdinetan koka daitezkeen proiektuak laguntzen ditu:

- A multzoa: Bi zatitan banatuko da A multzoa. Lehenengoaren bidez, diruz lagunduko dira Euskararen erabilera areagotu eta sendotzeko egitasmoak esparru ez formaletan, bereziki aisialdian garatzen direnak. Bigarrenik, honako proiektuak ere diruz lagunduko dira A multzoaren bidez: euskaldunen artean euskararen erabilera areagotu eta sendotzeko asmoz, gizarte aktibazioaren bidez, hizkuntza-ohiturak aldatu eta euskararen erabileraren aldeko jarrerak sustatzeko egitasmoak.
- B multzoa: Euskaraz ez dakiten euskal herritarra eta etorkinak euskarara hurbiltzeko helburua duten jarduerak eta egitasmoak.
- C multzoa: Euskararen familia bidezko transmisioa sendotzea helburu duten egitasmoak.
- D multzoa: Euskararen ondareari buruzko informazioa jaso, gorde edota digitalizatu eta hedatzea helburu duten egitasmoak (gehienez ere 3 egitasko diruz lagunduko dira, puntuazio altuena lortzen dutenak).
- E multzoa: Euskarari zuzenean lotutako alderdiak aztertzea helburu duten jardunaldiak (gehienez ere, zazpi egitasko diruz lagunduko dira).

- F multzoa: Euskalgintzan ibilbide oparoa izateagatik nabarmendutako pertsonak edo elkarteko omentzeko egitasmoak (gehinez ere, bi egitasmoei diruz lagunduko dira multzo honen bitartez).
- G multzoa: Euskaraz irakurtzeko zaletasuna sustatzea helburu duten egitasmoak: irakurketa- eta idazketa-trebetasunak garatze aldera buruturiko jardunak, sariak, lehiaketak, idazleen eta irakurleen arteko topaketak, eta literatura gidak (gehinez ere, zazpi egitasmoei diruz lagunduko dira).

Hauek izan ziren iaz diruz lagundutako 124 ekimenetako batzuk: ‘Bizilabe, gazteentzako ikerketa zentroen sarearen’, Elhuyar Fundazioaren eskutik; ‘Triatloia maite dut’, Arazi IKT-ren eskutik; ‘Gazteak, sortzaile digital’, Puntueus Fundazioaren eskutik; ‘Tokikom Sariak 2019’ (‘Premios Tokikom 2019’), Tokikom fundazioaren eskutik; eta ‘Kultur guneak’, Tokikomen eskutik.

Alarma Egoera dela eta, aginduen eskabideak aurkezteko epearri buruzko argibidea jaso da deialdian. Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izaten da, agindua boletinean argitaratzen den hurrengo egunetik zenbatzen hasita; hala ere, kontuan izan behar da 2020ko martxoaren 14ko 463/2020 Dekretuari jarraiki, Alarma Egoera amaitu arte epe administratiboak eten egingo direla. Beraz, eskaerak aurkezteko, presentzialki zein telematikoki, alarma egoera amaitu eta biharamunetik hasita hilabeteko epea izango da.

## Kultura eta Hizkuntza Politika

### **EUSKO JAURLARITZAK 450.000 EURO ONARTU DITU EUSKARA INGURUNE DIGITALEAN SUSTATZEA HELBURU DUTEN PROIEKTUAK DIRUZ LAGUNTZEKO**

- **Iazko diru-laguntza deialdiak jasotako bi modalitateen bitartez 44 ekimen digital babestu ziren**

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak euskara ingurune digitalean sustatu, garatu edota normalizatzeko diru-laguntzak onartu ditu bere gaurko saioan. Aurtentzat, 450.000 euro bideratuko dira zeregin honetara deialdi honen bitartez. Deialdiak bi modalitate izango ditu aurtentzat: batetik, Interneten edukiak euskaraz soilik hedatuko dituzten egitasmo ez komertzialak lagunduko dira; bestetik, Interneten euskaraz gain beste hizkuntza batean edo batzuetan zabaltzen diren egitasmo ez komertzialetako euskarazko bertsioak diruz lagunduko dira. Iaz 44 ekimen babestu ziren deialdi honen bidez.

Iaz berrikuntza aipagarri batzuk txertatu ziren diru-laguntza deialdi honetan. Alde batetik, euskarazko komunikabideentzako deialdia berritu zenez, eremu digitaleko komunikazio-proiektuak deialdi honetatik kanpo geratu ziren eta beren beregi diruz laguntzen dira deialdi berrituaren bidez. Bestalde, babesten ziren 'app'-en ebaluazioa egin ondoren, Eusko Jaurlaritzak erabaki zuen horiek finantzatzeko beste bide batzuk bilatzea.

Honako hauek dira diruz lagun daitezkeen egitasmoak:

- Interneten edukiak euskaraz soilik hedatuko dituzten egitasmo ez komertzialak (300.000 euro). 2020an abian jarritako proiektu berriak laguntzeaz gain, lehendik zeuden proiektuetan euskarazko funtzioko hobekuntza edo eduki berriak sartzea ere diruz lagunduko da.
- Interneten euskaraz gain beste hizkuntza batean edo batzuetan zabaltzen diren egitasmo ez komertzialetako euskarazko bertsioak (150.000 euro). Kasu honetan ere, 2020an martxan jarriko diren proiektuez gain, diruz lagunduko da lehendik zeuden proiektuetan euskarazko funtzioko hobekuntza edo eduki berriak sartzea.

Hauetan ziren azken laguntza deialdiaren bidez diruz lagundutako 44 proiektuetako batzuk: 'Otsoen Lurraldea' webseriearen hirugarren denboraldia, A Film to Killen eskutik; Kaixomaitia.eus, Araneten eskutik; Podcast.eus, Xoraturikanen eskutik; Mendiak.eus, Codesyntax enpresaren eskutik; Ahotsak.eus, Badihardugu Elkartearen eskutik; edota Arraten II, Arriguri Kooperatiba Elkartearen proiektua.

Alarma Egoera dela-eta, aginduen eskabideak aurkezteko epearri buruzko argibidea jaso da deialdian. Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izaten da,

agindua boletinean argitaratzen den hurrengo egunetik zenbatzen hasita; hala ere, kontuan izan behar da 2020ko martxoaren 14ko 463/2020 Dekretuari jarraiki, Alarma Egoera amaitu arte epe administratiboak eten egingo direla. Beraz, eskaerak aurkezteko, presentzialki zein telematikoki, alarma egoera amaitu eta biharamunetik hasita hilabeteko epea izango da.

## COVID 19

### Empleo y Políticas Sociales

#### LANBIDE LANZA LA CONVOCATORIA DE AYUDAS A AUTÓNOMOS Y EMPRESARIOS/AS INDIVIDUALES

La Consejera de Empleo y Políticas Sociales del Gobierno Vasco, Beatriz Artolazabal, ha trasladado hoy al Consejo del Gobierno el acuerdo del Consejo de Administración de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo, por el que se aprueba la convocatoria de ayudas extraordinarias para las personas trabajadoras por cuenta propia o autónomas cuyas actividades han quedado suspendidas a consecuencia de la declaración del estado de alarma para la gestión de la situación de crisis sanitaria ocasionada por el COVID-19.

Así, se regula cómo conceder las ayudas de 3 millones de euros en total ya anunciadas y qué requisitos hay que cumplir.

Podrán solicitar las subvenciones previstas las personas empresarias y profesionales individuales, así como los socios y socias de las comunidades de bienes y sociedades civiles, que reúnan los siguientes requisitos:

- Tener el empadronamiento y la residencia efectiva en la CAPV.
- Tener el domicilio social y fiscal y actividad empresarial en Euskadi y radicar en la misma el centro de trabajo
- Ser arrendatario/a de un local de negocio siempre que no esa parte de una vivienda de la persona solicitante o espacio compartido con otra empresa y no exista relación de parentesco hasta el 2º grado de consanguinidad o afinidad con el/la arrendador/a del local ni sea socio/a o partícipe de la persona física o jurídica que actúe como arrendador/a.
- Dedicarse en exclusiva a la actividad que ha quedado suspendida.

Las solicitudes deberán presentarse mediante el modelo oficial a través de la sede electrónica a la que se accederá desde <http://www.euskadi.eus> y se dispondrá de un enlace de acceso a la misma en la página web de Lanbide ([www.lanbide.euskadi.eus](http://www.lanbide.euskadi.eus)).

Las solicitudes deberán ir acompañadas de la siguiente documentación:

- Resolución de concesión de la prestación extraordinaria por cese de actividad para las personas afectadas por la declaración del estado de alarma para la gestión de la situación de crisis sanitaria ocasionada por el COVID-19.
- Contrato de arrendamiento de local de negocio.
- Documento acreditativo de la constitución de la Comunidad de Bienes o Sociedad Civil, en su caso.

Las ayudas podrán solicitarse desde el día siguiente al de la publicación de esta convocatoria en el BOPV.

Las solicitudes serán estudiadas por orden de presentación y serán aprobadas en el mismo orden todas aquellas que cumplan los requisitos y condiciones previstos en la convocatoria, hasta el agotamiento de los fondos.

## COVID 19

### Empleo y Políticas Sociales

#### EL GOBIERNO VASCO INCREMENTA EN 16 MILLONES DE EUROS LA DOTACIÓN DE LAS AES Y LA ELEVA A 43,5 MILLONES

El Consejo de Gobierno ha dado el visto bueno a la ampliación, en 16 millones de euros más, de la dotación que el Departamento de Empleo y Políticas Sociales realiza a las Ayudas de Emergencia Social (AES). Así, en total el Ejecutivo vasco aportará 43,5 millones de euros a los ayuntamientos de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La partida inicialmente asignada para las ayudas de emergencia social, de 27,5 millones de euros se antoja insuficiente ante la demanda que surge como consecuencia de la actual situación de emergencia sanitaria provocada por la pandemia del Covid-19 y la declaración del estado de alarma, que están teniendo un grave impacto, al generar un notorio empeoramiento en las condiciones de vida de muchos ciudadanos que, a su vez, está provocando un notable incremento de las situaciones económicas de emergencia.

Las AES se destinan a cubrir todo tipo de gastos derivados del mantenimiento de la vivienda, y necesidades primarias de vestido, educación, formación y atención sanitaria. Son, en definitiva, gastos necesarios para atender las necesidades básicas de vida. Las familias pueden solicitarlas a través de los servicios sociales de base, y son los ayuntamientos de Euskadi los que reciben su parte proporcional del presupuesto total del Gobierno, para distribuirla entre sus vecinos y vecinas más vulnerables.

La cuantía de 16 millones disponible para la ampliación, se distribuye territorialmente de la siguiente manera:

- Territorio Histórico de Araba: 2.522.070 euros
- Territorio Histórico de Gipuzkoa: 4.073.548 euros
- Territorio Histórico de Bizkaia: 9.404.382 euros

## COVID 19

### Empleo y Políticas Sociales

#### EL GOBIERNO VASCO DA LUZ VERDE A LAS AYUDAS A LA CONCILIACIÓN DE LA VIDA FAMILIAR Y PERSONAL, INCLUYENDO NUEVAS LÍNEAS CREADAS PARA LA SITUACIÓN DE CUARENTENA

El Consejo de Gobierno ha dado su visto bueno al paquete de ayudas a la conciliación expuesto por Beatriz Artolazabal, Consejera de Empleo y Políticas Sociales.

Estas ayudas, que se distribuyen desde hace dos décadas en Euskadi, contarán con nuevas líneas de financiación, algunas creadas expresamente para las complicaciones que el estado de alarma está creando en los hogares vascos. Así, se incluye la concesión de subvenciones a las familias afectadas por el cierre de centros educativos y centros de atención de personas con dependencia o mayores, así como para familiares de personas contagiadas o asiladas por el Covid-19, que tengan que atender sus cuidados.

En general, las medidas de apoyo a las familias incluyen:

- Ayudas a personas trabajadoras en situación de excedencia o reducción de jornada de trabajo para el cuidado de hijos o de hijas. (Incluyendo las denominadas ayudas de paternidad/maternidad para cónyuges no gestantes puestas en marcha en 2019).
- Ayudas a personas trabajadoras en situación de excedencia o reducción de jornada de trabajo para el cuidado de familiares en situación de dependencia o extrema gravedad sanitaria.
- Ayudas por la contratación de personas trabajadoras para el cuidado de hijos o de hijas menores.

El pasado año fueron 15.885 personas las beneficiadas por las ayudas a personas trabajadoras en situación de excedencia o reducción de jornada para el cuidado de hijos o de hijas, familiares en situación de dependencia o extrema gravedad sanitaria o ayudas por la contratación de personas trabajadoras para el cuidado de hijos o de hijas menores, 824 más que en el 2018.

En octubre de 2019, se incluyeron algunas novedades en estas subvenciones, con el objetivo de promover la conciliación y la corresponsabilidad familiar y favorecer el apego de los padres y cónyuges no gestantes desde los primeros días de vida del menor. En ese campo, destaca la creación de una línea para equiparar las bajas de maternidad/paternidad de los cónyuges no gestantes, a 16 semanas.

El objetivo de esta línea es que, tras la llegada del hijo o hija, ambas personas progenitoras puedan equiparar los períodos temporales disfrutados en los subsidios contributivos por nacimiento y cuidado teniendo derecho a un período de igual duración –16 semanas– intransferible, remunerado y no coincidente en

el tiempo. La cuantía económica de la nueva línea de ayuda es el 100% de la base de cotización del mes anterior a aquel en que se inicia la actuación subvencionable.

Se pretende con ello romper el rol femenino del cuidado, involucrar a los padres-hombres en las tareas de cuidado y fortalecer el vínculo del hijo o hija con ambas personas progenitoras, ya que la investigación científica ha probado que los vínculos que se establecen en estos primeros meses de vida se mantienen y prolongan en las siguientes etapas de crianza, siendo un factor de protección y fortaleza frente a situaciones de riesgo. La medida, además, reduce la penalización que las labores de cuidado tienen en el acceso al empleo y en las carreras laborales de las mujeres. Las primeras solicitudes se empezarán a recibir en las próximas semanas.

Además, con la finalidad de proteger especialmente a los colectivos en situación de mayor vulnerabilidad, se incrementa el importe económico de las ayudas en los supuestos de familias monoparentales, familias numerosas, unidades familiares con alguna persona miembro en situación de dependencia severa, o gran dependencia, o discapacidad superior al 50% y unidades familiares con alguna persona miembro víctima de violencia de género, en un 30%.

Asimismo, se introduce una discriminación positiva cuando la persona solicitante es hombre incrementándose los límites temporales máximos de disfrute de las ayudas.

### **Flexibilización y nuevas medidas ante el Estado de Alarma**

Ante la situación creada en las últimas semanas, con el cierre de centros escolares y centros de mayores, entre otros, el Gobierno Vasco entiende que las necesidades familiares también han cambiado y por ello ha tomado varias decisiones, flexibilizando y extendiendo temporalmente las ayudas que ya existen en materia de conciliación de la vida laboral y familiar.

Por un lado, en el programa de equiparación de permisos de paternidad y maternidad de hasta 16 semanas, se ha flexibilizado el requisito por el que se exige que la persona coprogenitora (la no solicitante) se encuentre dada de alta en la Seguridad Social durante toda la actuación subvencionable, para que se siga concediendo incluso cuando la relación laboral con su empresa sea suspendida como consecuencia del actual estado de incertidumbre, siempre que la suspensión del contrato se produzca durante el periodo de la actuación subvencionable.

Por otro, se concederán ayudas a la excedencia o reducción de jornada para el cuidado de menores y/o personas dependientes afectadas por el cierre de centros educativos y centros de atención, así como para familiares de personas contagiadas o asiladas por el Covid-19. Así:

- Se flexibiliza el requisito del período mínimo para la concesión de estas ayudas que hasta ahora era de 59 días y podrá ser menor, siempre que

las fechas coincidan con el cierre de los centros o el tiempo en que las personas diagnosticadas deban estar aisladas.

- Se duplican las cuantías de las ayudas.
- Se amplía la edad en las ayudas para el cuidado de menores que cubrirá a los menores de 14 años en las ayudas para la excedencia y la reducción de jornada por cuidado de menores.

La flexibilización de las ayudas se hará con carácter retroactivo desde la fecha en la que se produjo el cierre de los centros.

Aunque la dotación inicial de estas ayudas es de 37.145.650 euros podrá ampliarse hasta los 52.145.650 euros si en función de las solicitudes presentaras así fuera necesario. Para dar respuesta a las medidas extraordinarias se ha consignado un crédito económico que asciende a un importe total de 15.000.000,00 de euros.

El IV Plan Interinstitucional de Apoyo a las Familias (2018-2022), en su Eje 2, tiene como objetivo facilitar la conciliación de la vida personal, familiar y laboral y la corresponsabilidad en el cuidado de hijos e hijas.

Existe la opción de realizar la tramitación electrónica, a través de la web del Gobierno Vasco [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus), dónde se pueden resolver dudas, o llamar al teléfono de información: 012.

## COVID 19

### Empleo y Políticas Sociales

#### EL GOBIERNO VASCO CONCEDE 100.000 EUROS A CRUZ ROJA PARA QUE CONTINUE CON EL ABASTECIMIENTO DE ARTÍCULOS DE PRIMERA NECESIDAD DESDE LA RED GUZTION ARTEAN

El Gobierno Vasco ha decidido hoy, a propuesta de la Consejera de Empleo y Políticas Sociales del Gobierno Vasco, Beatriz Artolazabal, conceder una dotación de 100.000 euros a Cruz Roja Euskadi para que continúe su labor de abastecimiento de artículos de primera necesidad a las personas que se atienden desde la Red Guztion Artea, impulsada precisamente por el Ejecutivo. El Departamento de Empleo y Políticas Sociales considera de interés general apoyar las actuaciones que Cruz Roja está desarrollando en esta materia. Y es que tras las llamadas de apoyo recibidas en el call center de Guztion Artea, se ha constatado que existe la necesidad de disponer de este stock de alimentos y elementos básicos de higiene que no pueden ser suministrados por ninguna otra red de apoyo. Existe, por tanto, un interés público y social para dar respuesta a esta situación de emergencia.

Cruz Roja se va a dotar de un stock básico para abastecer con comida y básicos de higiene a las personas mayores de 70 años y/o dependientes, o en otras situaciones de vulnerabilidad, que residan en sus domicilios, vivan solas o en pareja, y carezcan de apoyo familiar.

#### Guztion Artea

La pandemia del Covid-19 está provocando que haya personas, especialmente vulnerables, que correrían un riesgo para su salud y bienestar si hiciesen compras o recados varios. Por eso, no pueden, por si solos, acceder a recursos medicinales, alimenticios o de higiene necesarios para el cuidado de la salud. Con el objetivo, entre otros, de apoyar a estos colectivos más necesitados y garantizar la cobertura social para todas las personas que lo necesiten estas próximas semanas, el Gobierno Vasco ha puesto en marcha un Plan denominado Guztion Artea que tiene por objetivo promover y apoyar iniciativas de solidaridad organizada que respondan a necesidades básicas de personas mayores de 70 años y/o dependientes, o en otras situaciones de vulnerabilidad, que residan en sus domicilios, vivan solas o en pareja, y carezcan de apoyo familiar.

Guztion Artea se ha diseñado bajo las directrices del Departamento de Salud del Gobierno Vasco y recoge una serie de criterios que es imprescindible adoptar para asegurar una respuesta adecuada.

En este programa es fundamental la participación de Cruz Roja de Euskadi, al colaborar en la coordinación de las personas voluntarias en la atención de las demandas que reciben de apoyo o de acompañamiento.

## Empleo y Políticas Sociales

### **LANBIDE PONE EN MARCHA UNA CONVOCATORIA DE AYUDAS PARA QUE LOS AYUNTAMIENTOS CONTRATEN A JÓVENES DESEMPLEADOS**

La Consejera de Empleo y Políticas Sociales del Gobierno Vasco, Beatriz Artolazabal, ha trasladado hoy al Consejo del Gobierno el acuerdo del Consejo de Administración de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo, por el que se ha aprobado la convocatoria de ayudas, para el ejercicio 2020, para la contratación de personas jóvenes por entidades locales en el marco del Programa Operativo de Empleo Juvenil 2014-2020. Se destinarán 6,5 millones de euros.

Lanbide ha establecido las bases de estas ayudas a conceder a las entidades locales municipales de Euskadi por la contratación de personas jóvenes desempleadas inscritas en Lanbide-Servicio Vasco de Empleo y en el Sistema de Garantía Juvenil. Es una medida que busca favorecer su empleabilidad, a través de la adquisición de experiencia profesional.

Esta medida está alineada con la Estrategia Europea por el Empleo y la Estrategia Vasca de Empleo 2020 de Gobierno Vasco.

En su búsqueda de nuevas fórmulas para seguir impulsando el empleo juvenil, Lanbide promueve esta convocatoria para ofrecer oportunidades de desarrollo laboral y personal a las personas jóvenes. Lo hace apoyándose en la dimensión local de las políticas de empleo, a través de los ayuntamientos de Euskadi, lo que permite que las propuestas se ajusten mejor a la realidad social y económica de cada municipio, ya que los ayuntamientos cuentan con el conocimiento profundo de su entorno.

Podrán solicitar subvenciones, los Ayuntamientos de los municipios cuyo índice de paro de las personas jóvenes menores de 30 años ha sido igual o superior al 13% en el mes de enero de 2020 y, a su vez, el número de personas desempleadas de esa edad en dicho mes era igual o superior a 10 o las agencias de desarrollo local con personalidad jurídica dependientes de los mismos. Se incluyen, además, las capitales de los tres Territorios Históricos.

Las solicitudes deberán presentarse mediante el modelo oficial a través de la sede electrónica a la que se accederá desde <http://www.euskadi.eus> y se dispondrá de un enlace de acceso a la misma en la página web de Lanbide.

Terminado el plazo de presentación de solicitudes y verificado que el plan de contratación y la memoria económica presentados cumplen con las condiciones y requisitos previstos en la convocatoria, se procederá a la distribución del presupuesto asignado a cada municipio, y a la concesión de las ayudas por cada contratación, teniendo en cuenta el orden de prioridad de las contrataciones que se haya señalado en la solicitud.

## Cultura y Política Lingüística

### EL GOBIERNO VASCO APRUEBA LA CONVOCATORIA 'EUSKALGINTZA', QUE DESTINA 979.200 EUROS A IMPULSAR PROYECTOS DE PROMOCIÓN DEL EUSKERA

- **El año pasado se subvencionaron 124 iniciativas a través de esta línea de ayudas; el plazo para la presentación de solicitudes se alargará durante un mes desde el día siguiente a la finalización del Estado de Alarma**

El Consejo de Gobierno ha aprobado, en su sesión de hoy, la convocatoria de ayudas conocida como 'Euskalgintza', dirigida a la promoción de proyectos que busquen el desarrollo y la normalización del euskara en la vida social. A través de esta línea de ayudas se apoya la actividad de asociaciones, actividades y/o proyectos que trabajan en el ámbito del euskera y la cultura o el ocio en lengua vasca. Este año se repartirán un total de 979.200 euros entre las diferentes propuestas subvencionadas, la misma cantidad que el año pasado

Esta convocatoria, una de las principales promovidas por la Viceconsejería de Política Lingüística, permite impulsar cada año más de un centenar de proyectos dirigidos a la promoción del euskera. El pasado año, en concreto, se apoyaron económicamente 124 proyectos a través de esta línea de ayudas. Esta línea de subvenciones apoya iniciativas que se puedan englobar en alguno de los siguientes apartados:

- Grupo A: Esta primera modalidad se divide en dos partes. Por un lado, se apoyarán programas dirigidos a aumentar y fortalecer el uso del euskara en ámbitos no formales, especialmente en el tiempo de ocio. En segundo lugar, se apoyarán propuestas que busquen impulsar el uso del euskera por medio de la activación de las y los hablantes a través del cambio de los hábitos lingüísticos.
- Grupo B: Actividades y programas para acercar el euskara a ciudadanas y ciudadanos vascos e inmigrantes no vascohablantes.
- Grupo C: Programas que tengan como objetivo fortalecer la transmisión familiar del euskara.
- Grupo D: Iniciativas que tengan por objeto la recogida, preservación y/o digitalización de información sobre el patrimonio relacionado con el euskara (se subvencionarán como máximo 3 programas, los que mayor puntuación obtengan).

- Grupo E: Jornadas que busquen analizar aspectos relacionados directamente con el euskara (se subvencionarán como máximo 7 programas).
- Grupo F: Programas destinados a homenajear a personas o asociaciones distinguidas por su trayectoria en la actividad cultural vasca (se subvencionarán como máximo 2 programas).
- Grupo G: Programas que tengan como finalidad la promoción de la afición por la lectura en euskara: actividades, premios y concursos realizados para desarrollar destrezas de lectura y escritura, encuentros entre escritores y lectores, y guías literarias (se subvencionarán como máximo 7 programas).

Estas fueron algunas de las 124 iniciativas apoyadas económicamente el pasado año: ‘Bizilabe, gazteentzako ikerketa zentroen sarea’ ('Bizilabe, red de centros de investigación para jóvenes'), de Elhuyar Fundazioa; ‘Triatokia maite dut’ ('Me gusta el Triatlón'), de Arazi IKT; ‘Gazteak, sortzaile digital’ ('Los jóvenes, creadores digitales'), de Puntueus Fundazioa; ‘Tokikom Sariak 2019’ ('Premios Tokikom 2019'), de la mano de Tokikom; y ‘Kultur guneak’ ('Espacios para la cultura'), de Tokikom.

La convocatoria de este año recoge una aclaración sobre el plazo de presentación de solicitudes, teniendo en cuenta la declaración del Estado de Alarma. Habitualmente el plazo de presentación de solicitudes es de un mes a contar desde el día siguiente a la publicación de la Orden en el boletín; sin embargo, hay que tener en cuenta que, en base al Decreto 463/2020, de 14 de marzo, se suspenden los plazos administrativos hasta el final del estado de alarma. Por tanto, la presentación de solicitudes, tanto presencial como telemáticamente, se realizará en el plazo de un mes a partir del día siguiente a la finalización del Estado de Alarma.

## Cultura y Política Lingüística

### EL GOBIERNO APRUEBA UNA CONVOCATORIA DE SUBVENCIONES DE 450.000 EUROS PARA APOYAR PROYECTOS QUE TENGAN COMO OBJETIVO IMPULSAR EL EUSKERA EN EL ENTORNO DIGITAL

- **El año pasado se apoyaron a través de las dos modalidades que incluye esta línea de ayudas 44 iniciativas del ámbito digital**

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su sesión de hoy las subvenciones dirigidas a impulsar, desarrollar y normalizar el euskera en el ámbito digital. Este año se destinarán un total de 450.000 euros a este objetivo a través de esta línea de ayudas, que cuenta con dos modalidades. Por un lado, se apoyarán proyectos no comerciales que desarrollarán contenidos digitales únicamente en euskera; por otro, se subvencionarán las versiones en euskera de propuestas no comerciales que desarrollan contenidos en euskera y otras lenguas. El año pasado se apoyaron a través de esta convocatoria 44 iniciativas.

El pasado año se introdujeron algunas novedades en esta convocatoria de subvenciones. Por un lado, los proyectos comunicativos del ámbito digital se apoyan ahora de manera específica a través de las remodeladas líneas de subvenciones para medios de comunicación, de manera que los medios digitales quedan fuera del ámbito de ayuda de esta convocatoria. Por otro lado, una vez realizada la evaluación de las ‘app’ que se venían apoyando, el Gobierno Vasco ha decidido buscar otras vías de financiación para las mismas.

Estas son las dos modalidades con las que contará este año esta convocatoria:

- Proyectos no comerciales que impulsarán contenidos únicamente en euskera en Internet (300.000 euros). Se apoyarán tanto proyectos nuevos, que se pongan en marcha en 2020, como la introducción de nuevas funciones, mejoras o contenidos en euskera en proyectos que ya existían.
- Versiones en euskera de proyectos no comerciales que, además del euskera, utilizan otras lenguas (150.000 euros). También en este caso se apoyarán proyectos que se pongan en marcha en 2020, así como la introducción de nuevas funciones, mejoras o contenidos en euskera en proyectos que ya existían.

Estos fueron algunos de los 44 proyectos apoyados económicamente a través de la última convocatoria de ayudas: la tercera temporada de la serie ‘Otsoen Lurraldea’, de A Film to Kill; Kaixomaitia.eus, de Aranet; Podcast.eus, de Xoraturikian; Mendiak.eus, de Codesyntax; Ahotsak.eus, de Badihardugu Elkartea; o Arraten II, de Arriguri Kooperatiba Elkartea.

La convocatoria de este año recoge una aclaración sobre el plazo de presentación de solicitudes, teniendo en cuenta la declaración del Estado de Alarma. Habitualmente el plazo de presentación de solicitudes es de un mes a contar desde el día siguiente a la publicación de la Orden en el boletín; sin embargo, hay que tener en cuenta que, en base al Decreto 463/2020, de 14 de marzo, se suspenden los plazos administrativos hasta el final del Estado de Alarma. Por tanto, la presentación de solicitudes, tanto presencial como telemáticamente, se realizará en el plazo de un mes a partir del día siguiente a la finalización del Estado de Alarma.